



MIRANDE, ESKANDAL-HARRIA

Eskandalizatzen zituen abertzaleak bere abertzaletasunaren erradikalismoaz. “Jeiki, jeiki Uskaldünak ehaitera juaiteko!” (a matar!) deitzen zuen. Jeltzale demokraten bizkarretik gogara burlatzen zen, irakurtzen baitakite (misala), kantuan ere bai (kantu ez likitsak); pilotan eta dantzan eta neska aratzekin ezkontzen (apezak eta auzapezak ongi bedeinkaturik).

Eskandalizatzen zituen demokratak bere faxismoaz, demokraziaz Euskadi salbatzerik ez dagoelako, eta demokraziak omen diren beste horik inperialismoak baizik ez direlako minoritate herrirentzat.

Eskandalizatzen zituen ezkertiarak eta sozialistak eta marxistak eta materialistak, materialismoak eta marxismoak eta sozialismoak judukeria eta kristautkeria eta klerikeria debot deklaratzu denak.

Eskandalizatzen zituen euskaldun fededunak bere paganismoaz, euskal mitologiako jainko zaharrak birbirtuz, sorginak egiazko euskal erlijioaren martiri deklaratzu, Jainkoaren esistentzia baztertuz, errespeturik batere gabe mintzatzu Jordango profet Josephen semeari.

Eskandalizatzen zituen moralistak, burjes ttipi hestuen “moralkeria buztinezko oinak dituenaz” burlatuz, atsegalea moralitasunaren oinarritzko printzipio ezarriz.

Eskandalizatzen zituen gurasoak, pedofiliaren bidezkotasuna eta zuzentasuna predikatuz, masturbazioari eta neskato ttipien maitasunari poesiak eginez.

Eskandalizatzen zituen familiak, haurrak izateko pozaz irri eginez, ezkonduen bizitza

putakeria legal kontsideratuz, norberaren emazte aspergarria hiltzea bekatu arintzat hartuz.

Eskandalizatzen zituen maitaleak, zakur grinatsuekin alderatuz, andre heldu baten haragiari nazka erakutsiz, sentsualitatea listuz betez.

Eskandalizatzen zituen sotilak eta eskandalizatzen zituen argituak, argituek estimatzen duten psikoanalisi konfesioarekin berdinduz nahiz sotilen egiak ustekeria bezala birrinduz; okultismoan eta fenomeno parapsikologikoetan sinestuz, baina ez sinestuz aingeru eta deabruetan; Basajaunaren agerpenak ontzat emanez, baina ez Ama Birjinarenak.

Eskandalizatzen zituen kontserbazaleak, bere antikonformismoaz; progresistak, bere burua eskuindar aitortuz; bakezaleak, indarra goretsiz; lotsakorrak, bere poesia berdez, eta irtenak, bere izpiritualismoz eta sentsualitatearen gaitzerizkoaz; serioak bere humore beltzez eta humoredunak bere sadismoz; materialistak, ariman sinestuz, eta izpiritualistak, arimaren betiereko bizitzaz deus jakin nahi ezez; arrazionalistak bere erromantizismoz eta erromantikoak bere kritika arrazionalistez...

Beraz, zuzen idazten zion adiskide Peilleni: “Gure azkeneko ikusaldian erran zenerautan Euskaltzale eta abertzaleen artean ene ideietako batño ere ez nuela khausituko; lehengoan, iruditut zait gogorregi edo pesimistegi zinela, baina areago pentsamendukatu eta ikusten dut arrazoin duzula. Zer egin behar da, bada? Ez dut ilusimendurik ene herritarrek ene pentsakoez eta, garrantzia haboro duena, ene senditzeo manerarat makurreraziko ditudala”.

Gregorio Baldatika